

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua:	04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala:	0440 - Administrazioaren Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia
Programa:	400 - Foru Aldundiko zerbitzuen berrikuntza eta eraldaketa
Funtzionala:	920 - Administrazio orokorra

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Programa honen misioa da Foru Aldundian gobernu ona, kudeaketaren hobekuntza eta berrikuntza sustatzea, herritarrei ematen dizkiegun zerbitzuak hobetzeko eta gizartearen beharrei modu eraginkorrean erantzuteko helburuarekin. Horretarako kudeaketa-metodologiak, izapide aurreratuak, informazio-sistemak eta komunikazio-kanal berriak ezartzen laguntzen diegu Departamentuei.

Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoako Foru Aldundian azken urteetan helburu estrategiko bezala ezarri dugu erakundean eraldaketa bultzatzea, gobernu ona, kudeaketa aurreratua eta berrikuntza sustatuz, gure barne prozesuak eta herritarrei eskaintzen dizkiegun zerbitzuak eta politikak hobetzeko asmoarekin. Era horretan, gizartearen behar eta erronka nagusiei erantzuteko gai izango gara eta 16. Garapen Iraunkorreko Helburuan ezartzen den bezala, bakea eta justizia bultzatuko duen erakunde solido bat bilakatuko gara. Eraldaketa hau lortzeko hainbat arlotan lan egiten ari gara: alde batetik, erakundean Gobernu Onaren ereduak sustatzen ari gara, 4/2019 foru arauan jasota dagoena eta erakundearen kudeaketako arlo guztietan eragina duena. Honela, Erakundearen Zuzentasun Sistema, administrazio ona eta gobernu irekia sustatzen ari gara erakundearen arlo guztietan, gure jardueren hobekuntza eta berrikuntza era sistematikoan gauza dadin, beti etengabeko hobekuntzara begira.

Bestetik, erakundearen eraldaketa digitala bultzatzen ari gara teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerak erabiliz informazioaren eta datuen erabilera adimentsuagoa egiteko eta herritarrei zerbitzu hobekoak eskaintzeko. 2021-2025 Eraldaketa Digitaleko Planaren ezarpenen ondorengo arloetan lan egiten ari gara: eraldaketa digitalaren kudeaketa estrategikoa, pertsonalaren gaitasun digitalak eta prestakuntza, datuen kudeaketa eta adimen artifizialaren erabilera, zerbitzuen digitalizazioa eta azpiegiturak eta ekipamenduak hobetzea. Eraldaketako arlo hauek guztiak azken urteetan garapen garrantzitsuak izan dute, eta datorren urteetan gure helburua erakunde osoan finkatzea izango da. Horretarako, sortuko ditugun metodologia, tresna eta baliabideak ahalik eta erabilgarrienak izan daitezela lortu behar dugu eta departamentuei beharrezkoen duten arloetan laguntza eskaintzeko gai izan behar dugu.

Beharrendaren deskribapen xehatua:

Erakundearen eraldaketarako baliagarri izango diren tresnak eta aholkularitza eskaini behar ditugu, ahalik eta era erraz eta praktikoenean, ondorengo arloen inguruan:

- Erakundean gobernu ona, administrazio ona eta gobernu irekia areagotzea, besteak beste kudeaketa estrategikoa, politiken ebaluazioa, kontu ematea eta gardentasuna sustatuz.
- Foru Aldundiaren kudeaketa ereduak departamentu guztietan ezartzen laguntzea, kudeaketako metodologia eta tresna aurreratuen ezarpena sustatuz.
- Eraldaketa Digitaleko Plana garatu eta eraldaketa digitaleko proiektu nagusiak bultzatzea.
- Kanal anitzetan ematen diren arreta eta informazio zerbitzuak bateratzea eta hobetzea; kanal berriak ikertuz.
- Erakundean informazioaren segurtasuneko kudeaketa-sistema ezartzea.

Nori zuzendua:

- GFAko Departamentuak, Zuzendaritza Nagusiak eta Zerbitzuak: gobernu ona, eraldaketa digitala, kudeaketa aurreratua, berrikuntza eta eraldaketa digitala bideratzeko ezartzeko laguntza eta aholkularitza eskaintzen zaie.
- Herritarrak, enpresak eta elkarteak: kanal ezberdinetan komunikazio, informazio eta arreta zerbitzuak eskaintzen zaizkie.
- Udalak eta beste administrazioak: jarduera arlo guztietan aholkularitza eta laguntza teknikoak eskaintzen zaie.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Aurrekontuak, pertsonalaren dedikazioa, kanpo aholkularitza, baliabide teknologikoak eta aholkularitza teknikoak (IZFE).

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

- Eraldaketa Digitaleko Planaren ezarpena bultzatzea proiektu ezberdinetan: kudeaketa estrategikoa, pertsonalaren gaitasun digitalen garapena, datuen kudeaketa aurreratua eta adimen artifiziala, azpiegiturak, zerbitzuen digitalizazioa, etab.
- Gobernantza ona sustatzea: gobernu onaren, administrazio onaren eta gobernu irekiaren funtsezko baloreen eta tresnen ezarpena zuzentzea eta koordinatzea
- Kudeaketa aurreratuko tresna ezberdinak sustatzea eta hauen inguruan aholkularitza ematea, zerbitzuen kudeaketa hobetzeko laguntza emanez eta kudeaketarako tresnak ezartzen lagunduz.
- Aldundiko aplikazio korporatiboak diseinatu, ezarri eta mantentzea.
- Izapideen digitalizazioa eta espediente elektronikoaren ezarpena bultzatzea.
- Kanal anitzetako arreta eta Infomazioa: Aldundiaren aurrez aurreko, telefono bidezko eta Internet bidezko arreta eta informazio orokorra ematea.
- Informazioaren segurtasunaren kudeaketa aurrera eramateko laguntza ematea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

- Arlo ezberdinetan aholkularitza teknikoak.
- Hobekuntza proiektuak: kudeaketa aurreratuko ereduaren inguruan eta metodologia eta tresna ezberdinen inguruan.
- Aplikazio korporatiboak: erakunde osoan erabiltzeko diren aplikazioak eta hauen mantenua eta hobekuntza.
- Administrazio Elektronikoa garatzeko sistemak eta aplikazioak, eta hauek ezartzeko laguntza teknikoak.
- Gardentasuneko edukiak eta datu irekiak argitaratzeko laguntza eta baliabide teknologikoak.
- Informazioaren segurtasuneko eta datu pertsonalen babeseke arloan aholkularitza.

Programaren arau esparrua:

- Gobernantza Onaren 4/2019 foru araua
- Prozedura Administrazio Orokorreko 39/2015 Legea
- Sektore publikoaren araubide juridikoko 40/2015 Legea
- Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoaren erabilera arautzeko 23/2010 Foru Dekretua
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herritarren Arretarako Foru Sistema arautzen duen 9/2022 Foru Dekretua
- Administrazio arloko arautegi orokorra

DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Erakundearen kudeaketa hobetu eta berritzea, izan dadin erakunde hurbilago, irekiago eta eragimen handiagoko bat.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Foru Jauregiko informazio eta arreta bulegora doazen pertsonen zuzendutako inkestaren "Asebetetze maila orokorra" eremuan lortutako batez besteko puntuazioa	Kopurua	>=	9,00	9,00	9,40	9,40
Kudeaketa Aurreratuaren eredia ezarri duten edo urrats bat eman duten Zuzendaritza Nagusien %	Ehunekoak	>=	44,00	21,00	35,00	100,00
Internet bidez egin daitezkeen izapidetzen ehunekoak.	Ehunekoak	>=	85,00	83,00	85,00	95,00

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Herritarren Arretarako Foru Sistema hobetu eta kudeatzea



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	618.291,87			2024/01/01	2024/12/31	
1.1 Ekintza Herritarren Arretarako Zerbitzu Korporatiboa garatzea, prozesuen hobekuntza eta Departamentuekin koordinazioa bultzatuz	602.958,43			2024/01/01	2024/12/31	
1.2 Ekintza Herritarrekin komunikatzeko kanal berriak aztertzea eta garatzea.	15.333,44			2024/01/01	2024/12/31	

2. Jarduketa ildoak:

Eraldaketa Digitaleko Plana garatzea



% 40,54




	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	470.936,32	93.170,00		2024/01/01	2025/12/31	
2.1 Ekintza Eraldaketa Digitaleko Planaren koordinazioa eta bultzada	135.497,71	93.170,00		2024/01/01	2025/12/31	
2.2 Ekintza Eraldaketa Digitaleko Planaren ezarpena	335.438,61			2024/01/01	2024/12/31	

3. Jarduketa ildoak:

Erakundearen Kudeaketa Aurreratua sustatzea

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	48.829,83			2024/01/01	2024/12/31	
3.1 Ekintza Foru Aldundian kudeaketa aurreratua garatzeko plangintza aurrera eramatea.	18.070,15			2024/01/01	2024/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
3.2 Ekintza Kudeaketa aurreratuko aholkularitza proiektuak aurrera eramatea.	30.759,68			2024/01/01	2024/12/31	
Urteko helburua:	Kudeaketako tresnak, aplikazio korporatiboak eta informazio sistemak hobetu eta mantentzeko jarduketa operatiboak					
Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Kudeaketa sistemekin eta korporazioaren aplikazioekin lotuta abiarazitako edo martxan dauden proiektuen kop.	Kopurua	>=	17,00	16,00	15,00	15,00
Kudeaketa sistemetan eta korporazioaren aplikazioetan hobekuntza proiektuak baloratzeko GFaren zerbitzuei zuzendutako inkestaren "balorazio orokorra" elementuan lortutako batez bestekoa	Kopurua	>=	7,86	8,44	7,80	7,80
Gobernu Onaren Foru Arauan zehaztutako publizitate aktiboko elementuen betetzearen portzentajea	Ehunekoak	>=	85,42	86,15	88,00	100,00
Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak						
1. Jarduketa ildoak: Sistema korporatiboak mantentzea eta hobetzea						
 16 % 55,55						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	138.285,95			2024/01/01	2024/12/31	
1.1 Ekintza Elkarreragingarritasuneko NISAE plataforma ezartzea eta sustatzea	57.667,20			2024/01/01	2024/12/31	
1.2 Ekintza Foru Aldundiaren Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema progresiboki ezartzea.	19.145,50			2024/01/01	2024/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
1.3 Ekintza Administrazio elektronikoko aplikazio korporatiboak mantentzea	61.473,25			2024/01/01	2024/12/31	
2. Jarduketa ildoak: Zerbitzuaren kudeaketa eta hobekuntza						
 % 24,18		 % 67,22				
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	44.226,24			2024/01/01	2024/12/31	
2.1 Ekintza Zerbitzuaren kudeaketako ekintza operatiboak: aginte koadroa kudeatzea, ezagutzaren zaintza, kontabilitatearen kudeaketa, presentzia Kontrola, ohiko jarduera gastuak eta dietak kudeatzea	10.692,80			2024/01/01	2024/12/31	
2.2 Ekintza Kanpoko ekintzak: Euskalit, Qepea, etab.	29.727,39			2024/01/01	2024/12/31	
2.3 Ekintza Zerbitzuan Kudeaketa Aurreratua ezartzea	3.806,05			2024/01/01	2024/12/31	
3. Jarduketa ildoak: Aldundiaren informazio sistemak mantendu eta hobetzea						
 % 47,24						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	146.479,94			2024/01/01	2024/12/31	
3.1 Ekintza Aldundiko informazio sistema korporatiboak mantendu eta hobetzea: egoitza elektronikoa, intranet, etab.	69.200,64			2024/01/01	2024/12/31	
3.2 Ekintza Foru Aldundiaren jauregira bisita gidatuak antolatzea	15.806,05			2024/01/01	2024/12/31	
3.3 Ekintza GFAREN web presentziaren kudeaketa eta hobekuntza	61.473,25			2024/01/01	2024/12/31	

Urteko helburua: IZFEren ekipamendu eta azpiegituretarako inbertsioak

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Inbertsioen exekuzio-maila	Ehunekoa	>=	30,00	80,00	80,00	80,00

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

IZFEren ekipamendu eta azpiegituretarako inbertsioak gauzatzea

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	4.737.791,00			2024/01/01	2024/12/31	
1.1 Ekintza IZFEren ekipamendu eta azpiegituretarako inbertsioak	4.737.791,00			2024/01/01	2024/12/31	

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Zerbitzutik bultzatzen ditugun hobekuntza proiektuen bitartez erakundearen eraldaketako arlo guztietan genero ikuspuntua txertatzeko aukera ikusten dugu.

Kuantifikazioa: 85.006,69 (% 1,35)

Ordainketa kredituak: 85.006,69 (% 1,37)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea.	(% 100,00)	
Go. HO.5.3. GFak zuzenean egiten dituen edo hirugarren pertsonen edo entitateen bidez GFarentzat egiten diren dokumentuetan eta euskarrietan hizkuntza ez sexista eta inklusiboaren erabileran sakontzen jarraitzea.	Go.5.3.1. Foru Aldundiaren intranetean gune bat eta adierazle sorta bat sortzea, GFako langileek dokumentuetan hizkuntza ez sexistaren erabilerari buruz izan ditzaketen zalantzak argitzeko.	(% 100,00)	

HIZKUNTZA BERDINTASUNEN PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Foru Aldundian kudeaketako eredu eta herritarrentzako zerbitzu aurreratuak ezartzeko orduan eta Eraldaketa Digitaleko proiektuak garatzeko orduan hizkuntza ofizialen kudeaketa txertazeko aukera ikusten dugu, ahal den neurrian euskara lan hizkuntza bezala indartuz.

Kategoria	Nola
1.- Zerbitzu hizkuntza	Herritarrekin komunikatzeko kanal berrietan hizkuntza ofizialen erabilera egokia kudeatzea
	Aurrerabide erarduaren eta planaren inguruko komunikazioak euskara hutsean egitea
2.- Lan hizkuntza	Eraldaketa Digitaleko Planaren lantaldeetan lan hizkuntza euskara izan dadila bultzatzea
	Hobekuntza proiektuetan lehenetsitako hizkuntza euskara izango da eta horrela komunikatuko zaie Departamentuei
	Zerbitzuaren lan hizkuntza lehenetsia euskara izango da, bai era formalean eta baita informalean ere
4.- Beste herri administrazioekiko harremanak	Gipuzkoako Udalekin dugun telefono bidezko harremanetan euskararen erabilera bultzatu, lehenetsitako hizkuntza bezala
8.- Kontratazio administratiboak eta diru laguntzak	



PARTAIDETZA PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Hobekuntzako proiektu giltzarrietan herritarren nahiz Aldundiko langileen partaidetza bultzatuko dugu.

Kuantifikazioa:	4.573,35	(% 0,07)
Ordainketa kredituak:	2.709,95	(% 0,04)
Datozen urteetako gastuak:	1.863,40	(% 2,00)

Kategoria	Kategoria %	Nola
1. HAUSNARKETA ETA ERABAKIA HARTZEA	(% 100,00)	7. Bestelako partaidetza prozesuak



GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2020-2023 legealdirako Plan Estrategikoan helburu estrategiko bezala ezarri du erakundearen eraldaketa bultzatzea, gobernantza ona, kudeaketa aurreratua eta berrikuntza sustatuz; era horretan, 16. Garapen Iraunkorreko Helburuan ezartzen den bezala, bakea eta justizia bultzatuko duen erakunde solido bat bilakatzeko.

Kuantifikazioa: 1.033.393,11 (% 16,41)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	16-Bakea, justizia eta instituzio sendoak Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	910.495,72	93.170,00
Helburura	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan	257.603,53	93.170,00
	Jarduketa ildoak		
	Sistema korporatiboak mantentzea eta hobetzea	76.812,70	
	Zerbitzuaren kudeaketa eta hobekuntza	10.692,80	
	Aldundiaren informazio sistemak mantendu eta hobetzea	34.600,32	
	Eraldaketa Digitaleko Plana garatzea	135.497,71	93.170,00
Helburura	16.10 - Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarrizko askatasunak babestea, estatuko legeen eta nazioarteko akordioaren arabera.	652.892,19	
	Jarduketa ildoak		
	Aldundiaren informazio sistemak mantendu eta hobetzea	34.600,32	
	Herritarren Arretarako Foru Sistema hobetu eta kudeatzea	618.291,87	
	17-Helburuak lortzeko aliantza Ezarpn-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.	29.727,39	
Helburura	17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezela sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	29.727,39	
	Jarduketa ildoak		
	Zerbitzuaren kudeaketa eta hobekuntza	29.727,39	
Guztira		940.223,11	93.170,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2023	2024	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2025	2026	2027	2028 eta hurrengoak/ 2028 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	1.143.157,00	1.153.344,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	327.453,00	313.660,00	93.170,00				93.170,00
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES							
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	1.470.610,00	1.467.004,00	93.170,00				93.170,00
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	4.399.219,00	4.737.791,00					
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	4.399.219,00	4.737.791,00					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	5.869.829,00	6.204.795,00	93.170,00				93.170,00

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL		1.153.390,15				1.153.390,15
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		313.660,00		93.170,00		406.830,00
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes		1.467.050,15		93.170,00		1.560.220,15
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL		4.737.791,00				4.737.791,00
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		4.737.791,00				4.737.791,00
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total		6.204.841,15		93.170,00		6.298.011,15